mirarte
CULTURA OCIO COMUNICACIÓN
cultura@noticiasdegipuzkoa.com

Danza

La coreógrafa catalana Angels Margarit y la bailaora malagueña Rocío Molina ganan los premios nacionales de 2010. PÁG. 70



Ezkerretik eskuinera, Cristina Fernandez marrazkilaria, Jon Arretxe idazlea eta Francisco Ibañez musikaria, atzo, Donostiako Konstituzio Enparantzan. ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO

Musika jarri dio '7 kolore' liburuari eta "aspaldiko ametsa" bete du Jon Arretxek

ORAIN DELA HAMAR URTE SORTUTAKO LANA **BERRARGITARATU** DU BASAURIKO IDAZLEAK

Cristina Fernandez eibartarrak marrazkiak gaurkotu eta Francisco Ibañez musikariak zazpi konposizio sortu ditu

JUAN G. ANDRÉS

DONOSTIA. Behin eta berriro azpimarratu zuen Jon Arretxek *7 kolore* liburuaren berrargitalpena ez dela berak bakarrik egin duen zerbait, "hiru sortzaileren arteko elkarlana" baizik. Orain dela hamar urte kaleratu zuen bidai kaiera famatuak argia ikusi du berriz, Francisco Ibañezen musika eta Cristina Fernandezen ilustrazio berriekin atonduta. Erein argitaletxeak atzo aurkeztu zuen Donostian, eta Basauriko idazleak bere lankideekin batera azaldu zuen prentsaurrekoan.

7 kolore lanaren testuetan Basauriko idazleak hamaika bidaiatan bizi izan dituen esperientzia berezienak bildu zituen, eta sentimenduka sailkatu, kapitulu bakoitza kolore baten esanahiari lotuz: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria. Ilunetik argira. Bidaia beltzarekin hasten da Euskal Herriko ospitale batean, bere aita hil zen logelan. Amaierako kolorea, berriz, zuria da eta agerian uzten du munduko beste hainbat tokitan –Indian, esate baterako– ikuspuntu ezberdina dutela heriotzaren inguruan, beste bizitza baten ataria baita heriotza.

Pertsonak dira nagusi narrazioetan, hamaika mundutako biztanleak, zerbait kontatu edo erakutsi beharra daukatenak, edo haien begirada hutsaz unibertso oso bat adierazten dutenak. Idazleak azpimarratu zuenez, "benetako kontakizunak" dira guztiak, lehen pertsonan bizitakoak. Batzuk tristeak dira, beste batzuk pozgarriak, edo beldurgarriak eta itxaropenez beteak...

"Jende askoren ustez, hau da nire bidai libururik onena. Ez dakit hala den, baina oso argi daukat lan hura sentimenduz beteta dagoela eta nik asko estimatzen dut", onartu zuen. Oraingoan, zenbait moldaketa egin du berridazteko garaian, baina "hirugarren zutabea falta zitzaion, musikarena", eta bizkaitarrak bere "ilusio hori errealitate bihurtu du" azkenik. "Aspaldiko ametsa bete dut", gaineratu zuen.

DOINUAK ETA MARRAZKIAK Musika ez zaio arrotza egiten Arretxeri. Piano eta kantuko ikasketak egin zituen eta, besteak beste, Ainhoa Merzero eta Olatz Saitua izan ditu irakasle. Egun, Ricardo Visus irakaslearen hobekuntza eskolak jasotzen ari da eta Bilboko Opera Koruan ere kantatzen du. Hala ere, bere ideiei forma emateko, Francisco Ibañez musikagile arabarrarengana jo zuen. Gasteizko kontserbatorioko zuzendari ohiak Jon Arretxek sortutako hitzei/koloreei doinuak jarri zizkien eta disko bat grabatu du zazpi kantarekin. Piano eta ahotsarako abestiak dira, Schubert, Schumann, Mahler, Strauss edota Escuderoren lieder zeritzenen antzekoak. Iñaki Belaskok pianoa jo du eta kantariak Olatz Saitua sopranoa, Enrique Campos tenorea eta Jon Arretxe bera izan ziren. Ibañezen aburuz, "bikain abesten du" Arretxek. "Baxu ahotsa ikaragarria du, oso sakona", gaineratu zuen.

Grabazioa Gasteizko kontserbatorioan egin zuten, "inongo tranparik gabe", zuzenean grabatu baitzuten lan guztia. Diskoa ez ezik, liburuak zazpi abestien partiturak ere baditu, pentagramak, notak, hitzak eta guzti. Horiek horrela, atal bakoitzeko istorioak irakurri aurretik, jendeak entzun ahal izango du kolore horri eskainitako kanta.

Bestetik, Cristina Fernandez eibartarrak gaurkotu ditu jatorrizko liburuaren marrazkiak. "Konturatu nintzen ilustrazio zaharrek ez zutela bat egiten bertsio berriarekin eta nire lan egiteko modua ere asko aldatu da azken hamar urteotan", azaldu zuen. Eskuz eta ordenagailuz aritu zen marrazten, bien arteko diferentziaz jabetzea zaila bada ere. "Inspirazio iturri" bezala, liburuan agertzen diren esperientziak eta sensazioak erabili ditu.

Gaztelaniaz ere argitaratu du Ereinek, *7 colores* izenburupean. Itzulpena Jose Luis Padronena da. Lana zuzeneko emanaldietan aurkezteko asmoa dute egileek eta lehen agerraldia Hondarribiako Zuloaga aretoan egingo dute, hilaren 18an.

EL LIBRO

● **'7 kolore'.** Publicado hace diez años, el libro recoge las experiencias vividas por Jon Arretxe en sus viajes a múltiples rincones del mundo: cada narración está asociada a un color, y cada uno de ellos refleja un sentimiento diferente. La reedición cuenta con ilustraciones de Cristina Fernández y con un disco de siete canciones compuestas por Francisco Ibáñez a partir de las letras de Arretxe. Erein ha editado también una versión en castellano traducida por José Luis Padrón. El precio de ambos libros es de 26 euros.

LOS AUTORES

● **Jon Arretxe.** Nacido en Basauri, es autor de una veintena de libros de distintos géneros: literatura de viaje, novela negra, narraciones de humor.
● **Cristina Fernández.** Nacida en Eibar, ha realizado las ilustraciones de múltiples obras de literatura infantil, juvenil y adulta.
● **Francisco Ibáñez.** Nacido en Oyón, ha escrito numerosas obras para coro, instrumentos solistas, orquestas de cámara y demás formaciones. Es ex director del Conservatorio de Vitoria.